

ZURETZAT

zure eskuetan
eraikiko nuke nere kabia,
zure begietan
argituko nuke nere bizia,
zure bihotzean
sustraituko nuke nere amodioa,
baina badakit, noizbait,
ahaztu behar zaitudala...
zuretzat malko bat,
zuretzat irrifar bat,
zuretzat nire kantua...
irudiak igaro bitez
eskutartetik ihes egin diezadatela,
airearekin bat
desagertu ditezela,
_auskalo!
nora dihoazen
eta nere ondotik pasatzean
haize bolada amultsu gisa
ez dut atzera begiratuko
ez ditut nere begiak urratuko,
eta nere ondotik pasatzean
haize bolada amultsu gisa
ez dizut begiradarik
ez dizut agurrik
ukatuko.
Eta gaueko bakardadetik
itzultzean
badakit ahaztu behar zaitudala...
Orduan,
ez ditut egunetik loreak
zimeldu nahi,
ez ditut egunsentiko kantuak
isildu nahi
eta bakardadearen ontzian
gauaren itsaso beltzetik itzultzean
lurreratu nahi dut
zure irudia ikusi nahi dut
musikaren doinuan dantzan
zure begiak topatu nahi ditut
azalean iheskor...
imajinatzen ditut
nere eskuak
ezerezen ferekan galduta,
imajinatzen dut
nere arnasa
isiltasunaren txokoetan lotsati
eta horregatik,

Aitor Sarasola lezoar
olerkari gaztea



amets batean loratzen zaitzatenean
bularrean daramazun
larrosa gorria, ohostuko dizut
nere eskuetan estutu
nere arnasaren magalean dantzatu
eta ez dut atzera begiratuko
eta ez dut zergatik galdetuko,
eta bioleta den
esperantzaren ontzian
itsasoratuko naiz
olatuek nire irudipenak
irentsi ditzaten.
Nere zainetan behera
kresalaren oihua entzutean,
ileetan behera
olatuen ur labainkorra sentitzean,
larrosa
setazko oihal xuriaz
estaliko dut,
eta aurrera begira
olatu kulunkarietan pausatuko dut,
lau haizeetara zabalduko da,
eta ni,
bioleta den ontzian
ortzean barna desagertuko naiz,
zuretzat diren bertsoetan jolaskari...
"... imagine que somos nosotros
tu y yo para siempre
que no eres de otro..."

AITOR SARASOLA
* Silvio Rodriguez

